

BERANGOKO GAZTE LEHIAKETA - BERANGOKO IDEIAK

"BERANGO ALDATU ZURE IDEIEN BITARTEZ"

Berangoko Ideiak-Berango aldatu zure ideien bitartez izeneko proiektuaren helburua da Berangoko kultura ekintzailea sustatzea, eta horrela, gizarte berrikuntza- eta garapen- proiektuen sorrera sustatzea. Etorkizunean proiektu horiek inplementatu ahal izatea nahi da, Berangoko Udalaren eta parte-hartzaileen artean lor litezkeen akordioen bitartez.

2016an martxan jarri den Berango Hiri Gaztea proiektuan zehaztutako helburuen zati bat da ekimen hau. Helburu horien artean, ekintzailatza sustatzea dago, izan ere, garapen pertsonala, gizarte berrikuntza, autoenplegua eta garapen ekonomikoa lortzeko bidea da.

1. Lehiaketaren xedea

- Berangoko gazteen artean ekimenak sortzeko eta garatzeko jarrera sustatzea.
- Honako gai hauekiko interesa sortzea: auto-okupazioa, kultura ekintzailea eta ekintzailatza proiektuen eta enpresen sorrera.
- Berangoko udalerrian gazteen parte-hartze aktiboa sustatzea.
- Eskualdeko herritarrengan Berangoko gazteen irudi sortzailea, ekintzailea eta aktiboa proiektatzea.
- Gure herrian aldaketa positiboak eskaintzen dituzten Ideia onenak saritzea, gizarte berrikuntza eta ekintzailatza arloetan.

Gai anitzeko proposamenak egin daitezke: Gizartea, Ingurumena, Euskara, Belaunaldi-artekoa, Artistikoa, Digitala, Elkarbizitza, Antolakuntza, Kulturartekoa, Kirola...

2. Nori zuzenduta dago

Berangoko gazteei zuzenduta dago, batez ere, 16-35 urte bitarteko gazteei. Baina Berangokoak ez direnek ere har dezakete parte, Berangon erroldatuta dauden gazteekin batera aurkezten badute ekimena.

- Banaka edo taldeka aurkez daiteke proiektua (gehienez ere 4 lagun).

BERANGOKO GAZTE LEHIAKETA - BERANGOKO IDEIAK

"BERANGO ALDATU ZURE IDEIEN BITARTEZ"

3. Lanak aurkezteko epea.

Proiektuak aurkezteko epea 2016ko ekainaren 27an hasiko da eta 2016ko irailaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira. Epe hori amaitu eta hilabeteko epean argitaratuko da ebazpena, gutxi gorabehera.

4. Dokumentazioa eta aurkezteko tokia

Berangon bideragarria eta aplikagarria den proiektu bat izatea nahikoa da, ekintzaitzarako/gizarte berrikuntzarako proiektu bat, eta eskaera bat egitea, honako dokumentu hauek aurkeztuz:

- 1- Inskripzio fitxa behar bezala beteta.
- 2- Proiektua garatzeko plana edo dosierra behar bezala idatzita (gehienez ere 8 orri). Dokumentu honen 10. puntuaren arabera egingo da.
- 3- Eranskina parte-hartzaile guztien datuekin- CV.

5. Aurkezteko era.

- 1) **Online:** mesajovenberango@gmail.com helbide elektronikoan, 10. puntuan azaltzen den moduan.

6. Balorazio irizpideak

1. Ideiaren bideragarritasuna. 40%
2. Kalitate teknikoa, proiektuaren barne koherentzia eta ideiaren zehaztapen-maila. Balorazio altua emango zaio Berangoko errealitatearekin zerikusia izateari 40%
3. Izaera berritzailea 10%
4. Proposamena aurkeztean erakutsi den kreatibitatea 10%

Proiektuak aurkezteko epea amaituta, hilabeteko epean argitaratuko da aurkeztutako proiektuen eta proiektu irabazlearen zerrenda.

BERANGOKO GAZTE LEHIAKETA - BERANGOKO IDEIAK

"BERANGO ALDATU ZURE IDEIEN BITARTEZ"

7. Sariak.

Ezarritako balorazio-irizpideen arabera sarituko dira ideiak. Lehiaketaren izaera sustatzailea eta diru baliabideak kontuan izanda, ez da eskatuko proiektu horiek inplementatzea.

- Proiektua udal guneetan aurkeztea. **Berangoko Udaleko Gazteria Saila.**
- 500 euroko saria.
- Ekimena udal argitalpenetan argitaratzea.
- 2016an Berangoko udalak bultzatuko dituen formakuntza-ikastaroetan parte hartu ahal izatea doan.

8. Konfidentzialtasuna.

Lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren datu pertsonalak datuak babesteko lege-araudiaren arabera erabiliko dira. Lehiaketako antolatzaile diren udalek saritu gabe geratutako parte-hartzaileek emandako proiektu eta datuen inguruan isilpekotasuna zaintzeko konpromisoa hartzen dute.

Epaimahaiak erabakia eman ondoren, proiektu irabazleen ezaugarri orokorrak zabaldu ahal izango dira, baita sustatzaileen izena eta irudia ere, aldez aurretik eskatuta.

Proiektua eta lehiaketa sustatzeko eskatuko zaien publizitate-ekintza guztietan laguntzeko betebeharra izango dute irabazleek. Era berean, jakinarazten dugu datu pertsonal guztiak fitxategi batean sartuko direla eta prozesua nola doan jakinarazteko erabiliko direla. Dena dela, ekimenak zabaltzeko prozesuaren ekintzak egiteko eta gazteen enplegu-programa berriak jakinarazteko datu horiek erabiltzeko baimena eskatuko da.

BERANGOKO GAZTE LEHIAKETA - BERANGOKO IDEIAK

"BERANGO ALDATU ZURE IDEIEN BITARTEZ"

9. Oinarriak onartzea.

Lehiaketan parte hartze hutsak berekin dakar oinarrietan jasotako atal guztiak eta epaimahaiaren erabakia (apelaezina izango da) onartzea. Gainera, udalek erreserbatuta dute, lehiaketaren garapena errazteko, oinarri hauetan egoki iritzitako aldaketak egiteko aukera.

10. Ideiak aurkezteko gidoia.

1. Ekintzailetzarako, gizarte berrikuntzarako enpresa ideiaaren izenburua.
2. Eskaintzen den produktu edo zerbitzuaren beharra justifikatzea: zergatik behar den hori Berangon.
3. Ideiaren alde berritzailea definitzea: zertan den berritzailea.
4. Proiektuaren osagairik garrantzitsuenak definitzea.
5. Proiektuaren erabiltzaileen definizioa: nori zuzenduta dagoen.
6. Gisa baliabideak eta baliabide materialak definitzea: nork jarriko duen martxan proiektua, zer behar den martxan jartzeko...
7. Plan ekonomikoaren definizioa: nola saltzen den eta bere kostua, hasieran behar den inbertsioa eta finantzaketa-iturriak...

11. IDEIAK AURKEZTEKO FORMATUA

1. Posta elektronikoz mesajovenberango@gmail.com
 - a. Dokumentua (Word, pdf, powerpoint....)
 - b. Ikus-entzunezko formatua (bideo)
 - c. Formatu digitala (web, portafolio...)
2. Ideiak aurkeztean erakusten den kreatibitatea baloratu egingo da.

12. AURKEZTEKO EPEA

- 2016ko irailaren 1a
- Ebazpena 2016ko urriaren 1ean argitaratuko da.